

DEIALDIA

Udal-plenoak **2020ko abenduaren 22an, arratsaldeko 19:00tan**, Udaletxeko Areto Nagusian ohiko biltzarra burutu behar duelarik, honen bidez deitzen zaizu, aipatu egun eta orduan bertara zaitezen. Bilkuran, atzealdean zehazten diren gaiak aztertuko dira.

Etortzerik ez bazenu, Alkatetza honi jakinaraztea eskatzen dizut, hala jasota gera dadin.

Oiartzun, 2020ko abenduaren 17a.

ALKATEAK,

2020ko abenduaren 22an, 19:00tan egingo den

UDAL OSOKO

OHIKO BATZARRALDIKO

GAI ZERRENDA

1. Aurreko batzarrari dagokion aktaren onarpena.
2. 2021 ekitaldiko Udal Aurrekontu Orokorra hasieraz onartzea.
3. Covid-19-aren ondorioz kaltetuak izan diren Oiartzungo komertzio, zerbitzu eta ostalaritza jarduerak berrabiarazteko ez ohiko dirulaguntzen 2. deialdia eta hauek arautuko dituzten oinarriak eta gastua onartzea.
4. ALT-6 Altzibar Mendebaldea eremuaren Plan Berezia behin betikoz onartzea.
5. 2021. urterako Udaleko lanpostuen zerrenda eta plantilla onartzea.
6. 2020. ekitaldian enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzei buruzko lankidetzeta-hitzarmena onartzea.
7. Familiei laguntzak bideratzeko 2021. urteko deialdia eta oinarriak onartzea.
8. Zailtasunak eta adingabeak ardurapean dituzten familientzako laguntzen 2021. Urteko deialdia eta oinarriak onartzea.
9. Energiaren Euskal Erakundeak, Oiartzungo Udalak eta Haurtzaro Ikastolak sinatutako hitzarmenen bidez, azken honen eraikuntzan eta Penadegin instalatutako plaka fotovoltaiakoen jabego- eskualdatzea eskatzea.
10. 2020-2021 ikasturteko helduen tailerrak gauzatu ahal izateko Helta elkarteari dirulaguntza onartzea.
11. Ibagain Musika Eskolarekin sinatutako hitzarmenaren arabera eta behin betiko ikasle-zerrenda ezagutu ondoren ordainketak finkatuta, 20/21 ikasturteko bigarren ordainketa egitea.
12. Arraskuelarre kalea 14 etxearen atzeko plazatxoko eta Erriberene kalera jaisteko eskaileretako zorua inpermeabilizatzeke lanak herri onurakoak izendatzea, eremuak erabilera publikoa duelako.
13. Beste ekitaldietako ordainagiriak baliogabetzea.
14. Beste organoen jardueraren jarraipena.
15. Eskari-galderak.

=====